

# Izen geografikoen inguruan\*

PATXI SALABERRI

**E**uskera aldizkariaren azkenaurreko alean <sup>1</sup> Alfontso Irigoien jaunaren artikulu interesgarri bat heldu da; bertan toponimo zerrenda luze bat eman ondoren, esaten zaigu delako zerrenda hori zabalik gelditzen dela etorkizunean zuzendu eta osatzeko. Guk, geure aldetik, ukitu batzu egin nahi izan dizkiogu, zuzentzeko ez bada, bai pittin bat bederen, osatzeko.

Gure zehaztapenak, batik bat, Nafarroako Eki-Erdialdeko <sup>2</sup> toponimian agertzen diren izenetan oinarrituko dira, hau baita hobekien ezagutzen duguna, baina Nafarroako beste leku batzutako berri ere emanen dugu, gure ezjakinak uzten digun heinean:

**AGERRIA:** Hitz hau garrantzi handikoa da gure eskualdean eta Nafarroako beste toki askotan, ipar-edo eguzki-ri erantsita, erdarazko 'carasol' edo 'caracierzo'-ren baliokideak diren *Iparragerria* eta *Eguzkiagerria* sortzen dituelako. Lehena adierazteko, *Opakuegia* <sup>3</sup> ere erabili izan da gu aztertzen ari garen herrietan.

**ALTUXUNBIDEA:** Irigoienek *Altuxubidea* besterik ematen ez badigu ere, guk, gure alderdian, *Altuxunbidea* aurkitu dugu gutiz gehienetan <sup>4</sup>. Izen

\* Iruñeko Magisteritza Eskolako irakaslea.

1. 33an (1988-2) 651-57.orr.

2. Oibarribar, Uxue eta Galipentzukoak batez ere.

3. MITXELENAK «Introducción fonética a la onomástica vasca» (*Sobre historia de la lengua vasca-II*, J. Lakarra argit., Donostia, 1988, 555-80.orr.) izeneko lanean, lehenik, H. Gavelen hitz hauek aipatzen ditu: «en certains endroits de la chaîne pyrénéenne il existe un terme particulier, *bago* (que l'on explique par le latin *opacum*), pour désigner le pâturage qui par sa situation est toujours (ou presque toujours) à l'ombre». Gero Mitxelenak berak honela esaten digu: «*opaku* se empleó sin duda como apelativo en una zona vasca: además de la población y del puerto alavés (Sierra de Encía), hay términos de ese nombre en Metauten y Zufía (Nav.) y una advocación de la Virgen, Nuestra Señora de Opacua, en Guesálaz (Nav.). Hay también un monte, el Opaco, en Urraul Bajo (Nav.)». Hauetaz gainera, Oibarren *El Barrio de Opaco*, *El Paco fondo*, eta *El Paco* daude; Leatxen eta Eslaban *Opakoegia* eta Zaren *Opakuegia*. Goizueta eta Leitza aldean hauen ordeztasunak *elutsa* ibiltzen dute *iparragerria* edo *opakua* adierazteko, eta *egutera* ([eútera]) beste alderdian, eguzkiagerria alegia, izendatzeko.

4. Egia esan, *Altuxubidea* Galipentzun baizik ez dugu opatu; Oibarribarreko beste herri batzutara (bai eta Orba ibarreko beste batzutara ere) sudurkaridun aldakia dokumentatu dugu.

honekin izendatzen ziren Erronkaritik Galipentzu eta Zarrakaztelun barna, eta Zaraitzutik Irunberri, Oibarribar eta Uxuen barna, «Bardeala» zihoazen bi ardi-bideak. Gauza bertsua adierazteko erabiliko zen *Altixirriabidea* ere aurkitu dugu.

**AREATZEA:** Artikuluaren egileak ematen duen mendebaldeko *area-tza*-ren aldamenean, Nafarroan nagusitasun osoa duen *areatzea* jarri behar genuke, eta honekin batera, inoiz edo behin agertzen den *areatokia* ere bai.

**ARTATZEA:** Hitz honek duen esanahia *artadia* edo *artaduia*-k duen berbera da. Oibarreko dokumentazioan izen arrunt gisa agertzen da, erdaraz erabilia *artegia*, *hondalan* eta besteren antzera.

**BEROKIA:** Irigoien jaunaren artikuluan *Ezkupea* azaltzen da, 'lugar abrigado' esanahiarekin. Gure eskualdean kontzeptu hau adierazteko *berokia* agertu ohi da: *Akerregiberokia*, *Jaun Done Petriberokia*...

**BIDEA / ESTRATA / GALTZADA / KAMIOA:** J. Juriok <sup>5</sup> dioenez, *kamioa* «en Iruñerria fue aplicado preferentemente a caminos reales de mucho tránsito, como el de la Ciudad de Pamplona a la Ribera». Beraz, badirudi «kamioa» hitzak bide handia, edo oso erabilia behintzat, adierazten duela. Oibarribar aldean beti *bidea* azaltzen zaigu, bide erabilia edo ez erabilia, handia edo txikia, adierazteko. *Kamioa*, aldiz, ez da inoiz ageri.

*Bidea*-ren ondoan beste izen bat ere aurkitzen dugu Oibar aldean: *galtzada*. Itxuren arabera, Iruñerrian «kamioa»-ren bidez izendatzen zena adierazteko erabiltzen zen honako hau. Halarik ere, Kokoerrian «kamioa»-z landa *galtzada* eta *calzada* ere <sup>6</sup> aurkitzen dugu, antza denez 'camino empedrado', 'bide harriztatua' aditzera emateko. Hau da, izan ere, I. Sarasolak <sup>7</sup> ematen dion esanahia: «harriz, bereziki harri landuz egindako bidea, bide lauzatua».

Honen aldamenean beste toki batzutan ibiltzen den *estrata* edo *estarta* izena paratu behar dugu. I. Sarasolak dioenez, «errekarriz lauzatutako bide edo kalea» da, «bereziki meharra edo aldapan dagoena». Guk, Oibarribar aldean ez dugu honelakorik eriden (*kamioa* eriden ez dugun bezala) eta uste dugu azterketa sakonagoa egin behar litzatekeela, aipaturiko lau izen hauen hedadura eta esanahia hobezehazteko <sup>8</sup>.

**ERORTZA:** Orain Goizuetara igoaz, diogun herri honetan, luizia, lur jauzia edo lurtea aditzera emateko *erortza* hitza erabiltzen dela: «izugarritzko erortza izandu da Urraidako lepo inguruan» <sup>9</sup>.

5. «Arrizabalaga (Campanas) y Artederreta (Carrascal)» artikuluan, FLV, 53.alea, 1989, 75-85.orr.

6. J. JURIO, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar eta Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza* (TCPCG eta TCPCO hemendik aurrera), Euskaltzaindia, Iruñea, 1987 eta 1989.

7. *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia, 1985.

8. Goizuetan, *estarta*-k erlazionatutako bi adiera dauzka: 1- 'bi etxeren arteko tartea', 2- 'bi pareta tarteko bidea'. Goizuetari dagokion informazio guztia bertako semea eta gure lankidea den J. José Zubiriri zor diogu.

9. Uxuen eta inguruko herrietan *bosau* (< bosado) edo *bosadizo* esaten da ideia bera adierazteko (ikus Iribarrenen *Vocabulario navarro*, Institución Príncipe de Viana, Iruñea,

**ERREKA / ERREGUA:** Oibarribar aldean *erreka* ez zen ‘arroyo’, edo ez behintzat gehienetan. Erdarazko ‘barranco’ adierazteko ibiltzen zen hitz hau normalean. *Erregua* bere aldetik, *erreka*-ren sinonimo gisa azaltzen da bai gure eskualdean eta bai Iruñerrian <sup>10</sup> ere.

**EZTOMA:** ‘Koska handia’, ‘malda xuta’ adierazten duen hitz hau Goizuetan erabiltzen da: «belaso (< belasoro < belar + soro) hortan ikaragarritzko eztomak daude». Hau, gure iduriz, Mitxelenak <sup>11</sup> aipatzen duen Oiar-tzun eta Aranoko *eztonba* ‘talud’, ‘terraplén’-en aldaera baizik ez da <sup>12</sup>.

**GORTEA:** Guk aztertutako herrietan, Artaxonan bezala <sup>13</sup>, hitz hau, *korral(e)*-rekin batera, borden antzekoak diren «corral»-en euskal ordaina zen <sup>14</sup>.

**HAITZULO:** Gure eskualdeko toponimian, eta Iruñerrian ere <sup>15</sup>, koba edo lezea adierazteko ibiltzen zen izen hau.

**HARRIDIA:** Honen ondoan Nafarroan eta Araban gutxienez, hain zabaldua dagoen (*H*)*arduia* aldaera jarri behar genuke. Ikus daitekeenez, bi ezberdintasun erakusten ditu honek harekiko: -dui -di-ren orde, eta silaba-bikoaren azken bokalaren erortzea, euskal elkarketa eta eratorketan sarri askotan gertatu ohi denez.

**HERRIA:** Izen hau, toponimo bati erantsia, toponimo horren inguru-ko alderdia aditzera emateko erabili izan da gure hizkuntzan, erdarazko ‘tierra de’ adieraz. Beraz, eta egungo egunean elkarketa mota hau emankorra ez dela badirudi ere, uste dugu komenigarria litzatekeela hildakoak berpiztu eta, beharra balego, dermio honetaz baliatzea. Adibide moduan *Tutererria* sor genezake, honen beharra bagenu, Tuter inguruko lur eta herriak adierazteko, *Iruñerria*, *Kokoerria*, *Lizarrerria* edo *Estellerria*, *Pardixerria*, *Toloserria*, *Zaraitzuerrria* eta bestek ematen diguten ereduari jarraikiz.

**IBARRA / HARANA:** Bi dermio hauen arteko aldea zein izan daiteke-

1984, bigarren argitalpena).

10. JIMENO JURIOK GALAR-GETZEN, *Guesal erregua* eta *Guesal erreka* aurkitu du erre-kasto bera izendatzeko (TCPCG).

11. *Apellidos vascos*, Txertoa, Donostia, 1973, 88.or.

12. Jakina denez, euskaraz mb > m pausua ezaguna da; adibide moduan, Uxueko *Lakunbalatu* > *lakumulatu* edo *Santakaranburu* > *Santakaramuru* aipa daitezke.

13. J.M.<sup>a</sup> JIMENO JURIO, «El euskera en la toponimia de Artajona», FLV, 3.alea (1969), 375-85.orr.

14. Seguraski herriaren dermioaren tamainarengatik izango ziren hain ugariak Uxuen. Orain, nekazaritzaren mekanizazioarekin ez dira horren beharrezkoak, eta garaje gisa ibiltzen ez direnak hondatzen hasiak dira, edo dagoeneko erabat deseginik daude. Lehen, orde, eta batez ere garia edo mahatsa bildu behar zirenean, familia osoak joaten ziren gorte edo korrale hauetara hilabeteak ematera.

15. J.M.<sup>a</sup> JIMENO JURIO, TCPCG. Autore honek honela dio (377.or.) Zubitzako «Aiçuloa» toponimoaren deskribaketa egitean: «Extremo S.E. del monte «la Larrea», con acantilado de areniscas blandas sobre la hondonada. En la roca se abre la ‘cueva’ o ‘Casa Aculba’, concavidad artificial, al parecer, de unos 2’50 ms. de fondo. Se asciende por una corta senda entre encinas. Sirvió de refugio a labradores y pastores. Está frente a Tiebas y a la ‘cueva la Lecea’ de Aláiz. En la hondonada brota la fuente».

en ez badakigu ere, esan behar dugu guk beti *arana* aurkitu dugula Oibarri-bar aldean erromantzezko «val de»-ren ondoan. *Ibarra* behin baizik ez zaigu azaldu, eta espezifikoa gisa gainera. *Arana* bere aldetik, espezifikoa izan daiteke, edo eta, maizenik gertatzen den moduan, generikoa.

**IBINA:** Basaburuko Udabe eta Beramendi herrietan gutxienez, *ibine* [iβiné] erabiltzen da, Irigoienek Satrustegiri jarraituz aipatzen duen *ibintzea* -k adierazten duena adierazteko. Argi dago azken hau haren eratorri bat dela, alegia, *ibin(a)* + *tze(a)*.

**IRIGOIENA / IRIARTEA / IRIBARRENA:** Artikuluaren egileak «Hiria», «Herria», «Herburua» eta beste aipatzen ditu, baina ez Nafarroan hain zabaldurik dauden *Irigoiena* («Barrio alto» edo «Barrio de arriba» erdaraz), *Iriarte* («Barrio de medio» edo «Barrio de medios»), eta *Iribarre-na* («Barrio de abajo» edo «Barrio bajo»).

**LAKUA:** *Lakua* Nafarroako zenbait tokitan ez da erdarazko 'lago', toki urtsua, ura darion lurtsaila baizik. Horregatik, eskuarki 'lago' esateko ibili arren, jakin behar dugu beti ez duela esanahi hori eduki, beti hidronimo bat izendatzeko erabili bada ere.

**LANDA:** Irigoienek, lehenik, *larre* eta *euntze*-rekin identifikatzen du *landa*, 'pastizal y prado' esanahia ematen dielarik hiruei. Gero berriz, *zelaia*-rekin parekatzen du, eta 'campo' gisa itzultzen. Gure iduriz, *landa*, Salaburuk dioenez, 'zerbait landatzeko erabiltzen den lekua' zen Oibar aldean, ez *euntze* 'prado' edo *larre*<sup>16</sup>-ren sinonimoa. Horregatik agertzen da Eslaban *Landalarratza* bezalako toponimoa, hain zuzen ere lantzeari utzi zaion lur puska izendatzeko.

**LARRATZA:** Izen honekin erdarazko 'lieco', 'faitía' edo 'faitío' adierazten zen gure alderdian, hots, lehen bai baina orain lantzen ez den lur puska.

**LUBERRIA / NOBELA:** Irigoienek dakarren *labakia* jatorraren ondoan, *luberrri* ere jarri behar genuke kontzeptu bera aditzera emateko, hau da, 'lur landu berria' esateko. Hauen aldamenean hirugarren izen bat ere para dezakegu: *nobela*. Azken hau oso zabalduta dago (edo zegoen) gure herrialdean, eta horregatik uste dugu aintzat hartu beharra dagoela.

**MALKORRA:** Hitz hau leku askotan erabiltzen da, 'amildegia' adieraz. Honen antzekoa dela uste dut Baztanen ibiltzen duten *erroitza*.

**MOREA:** Toponimo hau ere oso zabalduta dago; gutxienez, Uxue, Orbaibar, Longida, Mañeru eta Iruñerrian erabiltzen zen. Antza denez, ez da *idoia* edo *baltsa*-ren sinonimoa, esanahiak oso urrun ez badaude ere<sup>17</sup>.

16. Baztan aldean ongi bereizten dituzte *Belaia* eta *larrea*. Lehendabizikoa hesitua, hertsia egonik, belarra ebakitzen den tokia da; bigarrena aldiz, ez dago hesitua eta belarra izaten bada ere, ez da ebakitzen. Hauen aldamenean *larraska* ere ibiltzen dute, oker ez bagaude zuhaitzen arteko belarra (eta tokia) adierazteko.

17. J.M.<sup>a</sup> JIMENO JURIOREN arabera, *idoia* eta *morea*-ren arteko diferentzia zera da,

**PAUSUA:** Izen hau ere oso ezaguna da gure alderdian. Guk azterturiko herrietan, batzutan, espezifiko moduan agertzen da, baina beste askotan, ia beti, generikoa da, hots, toponimo baten laguntzaile eta «zehaztailea». Erreka bat zeharkatzeko toki aproposa, sakontasun gutxikoa (batzutan zeharkatzea errazten duten zenbait harriz hornitua) adierazten du: *Indusigibel-pausua*, *Indusigibeleko pausua*...

**PORTILUA:** Oibarribarren, behin edo beste 'portillo' esateko *atea* aurkitzen badugu ere, arruntena, eta generiko gisa beti azaltzen zaiguna, *portilua* da: *Dorretaportillua*, *Dorretako portillua*...

**POTXE:** Hau, B. Urtasunek dioskunez <sup>18</sup>, Orotz-Betelun erabiltzen da erdarazko 'foz' adierazteko. J.M.<sup>a</sup> Iribarrenen arabera <sup>19</sup> *Poche* edo *Pocha*-k 'paso o cañada; espacio de tierra estrecho entre dos alturas' adiera dauka, non ibiltzen den zehazten ez duelarik. Gure ustez, izen hau aipatu dugun 'foz' erdaldunaren ordain euskalduna izan daiteke, zeren fonetikoki behintzat, badirudi ez dagoela inolako trabarik *potxe* ere latineko «fauc(m)»-ren eratorriren batetik ateratzeko <sup>20</sup>.

**SOROA:** Goizuetan «leku zelaia edo zelaiantxea, belar ttikia eta leuna duen tokia» da, ez da lantzen; etxe ondoan edo mendian izan daitekeelarik.

**ZABALA / ORDOKIA / ZELAIA:** Hitz guzti hauek erromantzezko *llano*, *plano* edo *plana* emateko ibiltzen ziren Oibarribar aldean <sup>21</sup>.

**ZULOA** Hau *hoya* erdaldunaren euskal ordaina da, guk aztertutako herrietan.

**UGALDEA:** Harrigarria da, gure ustetan, Nafarroan hain hedatua <sup>22</sup>

alegia, lehenak euria biltzen duen zuloa adierazten duen bitartean, bigarrenak berez ura darian tokia adierazten duela. Bestaldetik, toponimo hau, Mitxelenak dioenez («Notas lingüísticas a colección diplomática de Irache», *Palabras y Textos*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1987, 87-118.orr.) «(es) si no exclusivo, si muy característico de la toponimia navarra, en una extensión cuyos límites habría que fijar». Leku-izen honetaz informazio gehiago nahi duenak, J.M.<sup>a</sup> MATHIEUREN «En torno al topónimo *Morea*» (FLV, 12.alea, 1972, 321-43.orr.) lanera jo dezake.

18. «Toponimia de Oroz-Betelu», FLV, 9.alea (1971), 333-46.orr.

19. Vocabulario.

20. Itxura guztien arabera, euskaraz, \**Potze* edo atera behar litzateke, hemen proposatzen dugun etimologia zuzena bada behintzat (cf. *crucem* > *gurutze*). Delako \**potze* hori erdaldunen ahotan *potxe* bihurtuko zen, hau da, egungo egunean ibiltzen den aldaera. Guk Galipentzun *pozea* dokumentatu dugu, eta Ibargoitiko Elo-n «*la pocha*». Hitz honen sinonimo bat *zintzurra* da, antza denez: «llaman en el valle de Arce 'la neskaundi' (la buena moza) a un monolito cónico que se halla a la entrada del *poche de Chinchumear*, en el Urrobi, entre Orbáiz y Nagore» (Iribarren, Vocabulario, *Neskaundi* sarreran. Letra larria gurea da).

21. Orban dagoen Artederretan ere (J. JURIO, «Arrizabalaga...», 81.or.) *zelaia* ibiltzen zen *plana* esateko, *Artederreta zelaia* eta honen itzulpena den *Plana de Artederreta* toponimoan ikus daitekeenez.

22. Arakilen, Iruñerrian, Ezkabarten, Baztanen, Zaraitzun, Urraulen... eta beste hainbeste tokitan erabiltzen da edo zen.

dagoen hitz hau artikuluan ez agertzea. Jakina denez, gaurregun batuaz erabiltzen den *ibaia*-ren sinonimoa da. Honen ondoan, behin edo beste, *Urandia* ere aurkitu dugu <sup>23</sup>.

**UHARKA:** Irigoienek ‘estanque’-tzat hartzen badu ere, uste dugu, ibaietan egiten ziren ‘presa’ modukoak izendatzeko erabiltzen zela, ‘estanque’ esateko baino areago. Hau da hitz honek gure alderdian zeukan esanahia, eta bai, Jimeno Jurio-ren lanean ikus daitekeenez <sup>24</sup>, Iruñerrian zeukana ere.

Honenbestez, eta gai hauetaz interesaturik daudenentzat lagungarri izango delako esperantzan, bukatutzat emanen dugu izen geografikoen inguruko azterketa xume hau, ikerketa sakonagoa egin behar dela ongi dakigun arren.

## LABURPENA

Lantxo honetan, A. Irigoien jaunak *Euskera* aldizkarian argitaratutako artikulua batean oinarriturik, zehaztapen batzuk egin nahi izan ditugu izen geografikoen gainean, erreferentziatzat batez ere Oibar aldeko toponimia hartuta, inoiz edo behin Nafarroako beste toki batzutako berri ere ematen dugun arren.

Aztartzen ditugun izenen artean *iparragerria* eta *eguzkiagerria*-ren osagarria den *agerria* ‘agerian dagoen tokia’, *altxunbidea* ‘ardibidea’, *berokia* ‘babes-lekua’, *erregua* ‘odia’, ‘erreka’; *eztoma* ‘malda xuta’; *ibina* ‘ibintzea’, *lakua* ‘ura darion eremua’, *portilua* ‘atea’, *potxe* ‘zintzurra’, *ugaldea* eta *urandia* ‘ibaia’ aipa daitezke, besteak beste.

## RESUMEN

En este trabajo hemos intentado, basándonos en un artículo publicado por A. Irigoyen en la revista *Euskera*, hacer una serie de aclaraciones sobre el valor de ciertos nombres geográficos. Para ello hemos tomado como punto de referencia la toponimia de la zona de Aibar aunque esporádicamente también se haga referencia a la de otras zonas de Navarra.

Entre los nombres que se estudian podemos mencionar, entre otros, *agerria* ‘lugar al descubierto’, ‘cara’, parte de los compuestos *eguzkiagerria* e *iparragerria*, *altxunbidea* ‘cañada’, *berokia* ‘abrigo’, *erregua* ‘barranco’, ‘arroyo’, *eztoma* ‘terraplén’, *ibina* ‘rastroyo’, *lakua*

23. *Urandia* Aragoi ugaldeari esaten zitzaion Galipentzun, honen alderantzizkoa, antza denez, J. Jurio jaunak Oltza zendean (TCPCO 21.or.) aurkitu duen *ur txikia* da. Honela mintzo zaigu ikerle ezagun hau: «El actual Araquil fue denominado antiguamente *Arga* en el tramo entre Osquía e Ibero, mientras que el actual *Arga* fue llamado *Runa* a su paso por Pamplona. La documentación suele designarlos de forma genérica: «río caudal» («Río caudal que viene de Pamplona; Río caudal que viene del valle de Araquil»), diferenciándolos de los afluentes principales, llamados *Ur txikia*, *agua chiquita* o *río pequeño*.

24. Honela dio Aratzuriko *Ugarcaparea* toponimoa aztertzean: «Paraje en Arisdia, que debió la denominación a su emplazamiento al par de la presa del molino». TCPCO, 55.or.

‘terreno aguanoso’, *portilua* ‘portillo’, ‘portillada’, *potxe* ‘foz’, *ugaldea* y *urandia* ‘río’.

## RESUME

Nous avons tenté dans ce travail, en prenant pour base un article publié par A. Irigoyen dans la revue *Euskera*, d’apporter une série d’éclaircissements sur la valeur de certains noms géographiques. Nous avons pour ce faire pris comme point de référence la toponymie de la région d’Aibar, tout en faisant sporadiquement référence à celle d’autres régions de la Navarre.

Parmi les noms étudiés, on pourra citer, entre autres, *agerria*, «lieu à découvert», «face», que l’on retrouve dans les noms composés *eguzkiagerria-iparragerria*; *altxunbidea*, «draille»; *berokia*, «abri»; *erregua*, «ravin», «ruisseau»; *eztoma*, «terre-plein»; *ibina*, «chaumes»; *lakua*, «terrain détrempé»; *portilua*, «portillon», «passage»; *potxe*, «gorge»; *ugaldea* et *urandia*, «rivière».

## SUMMARY

We have tried in this work, based on an article by A. Irigoyen published in the magazine *Euskera*, to throw some new light into the value of certain geographical names. With that in mind, we have taken the toponymy of the Aibar area as a point of reference, although we occasionally make a reference to other areas in Navarra.

From among the names here studied it is worth mentioning: *agerria* «open place» «face», which is part of the compounds *eguzkiagerria-iparragerria*, *altxunbidea* «cattle track», *berokia* «coat», *erregua* «gully» «stream», *eztoma* «embankment», *ibina* «stubble field», *lakua* «sodden ground», *portilua* «opening» «pass», *potxe* «ravine», *ugaldea* and *urandia* «river».

